

---

# Foru Gobernu Kontseilua / Consejo de Gobierno

---

## Erakunde Adierazpena Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Diputatuen Kontseiluak, 2016ko martxoaren 8ko ospakizuna dela-eta, erakunde-adierazpen hau onartzen du:

Arabako Foru Aldundiak bat egiten du martxoaren 8ko ospakizunarekin, zeina NBEk 1977an Emakumeen Nazioarteko Eguna gisa izendatu baitzuen.

Gauza asko lortu dira harrezkeroztik, bereziki emakumeen bizimodua hobetzeko balio izan dutenak, baina, emakumeena ez ezik, baita pertsona guztiena ere. Gogoetarako eguna ere bada, ordea, desafio berriak hautatzekoa, eta berdintasunerako bide luzean konpromisoa berritzekoa.

Arabako Foru Aldundiak egun hau ospatu nahi du aurten ere, Emakumeen Nazioarteko Eguna, ahalduntzean jarriz arreta.

Ahalduntze terminoak 1995ean hartu zuen indarra Nazio Batuen Munduko IV. Konferentzian, Beijing-en. Mugarria eta erreferentea izan zen emakumeek munduan daukaten egoera aztertzeko, eta nabarmen utzi zuen emakumeek gero eta parte handiagoa hartzen zutela erabakitzeko eta ahalmentzeko prozesuetan.

Aurtengo lelotzat hau hautatu dugu: "Emakumeok beti ahaldun-Nosotras, mujeres, creando poderes". Helburua da emakumeen bizitzeko, pentsatzeko eta sentitzeko modu ezberdinak proiektatzea. Leloak aditzera eman nahi du emakumeen ahalduntzea dela eraldaketa indar bat giza eskubideen, garapenaren eta iraunkortasunaren alde, eta bihurtu nahi duela emakumeen eta gizonen berdintasuna garapen indar guztien oinarritzko elementuetako bat.

Munduko Konferentzian onartu zenetik bi hamarraldi baino gehiago igaro direlarik, izan dira, bai, aurrerapenak, baina geldiro gauzatu dira, eta ezberdinki, eta generoen artean dauden ezberdintasunak nabarmenak dira oraindik ere, eta, arlo batzuetan, oso handiak. Berdintasun osoa, oraindik ere, oso urruti ageri den helburua da, eta erakundeek, herritarren eskubideen bermatzaile gisa, orain arte halako bi bider gehiago saiatu behar dugu gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat lortzeko.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, agertu nahi du uste osoa duela honetan: emakumeek bizitzako arlo guztietan parte hartzea --lan arloan, gizartean, kulturen nahiz politikan-- ezinbesteko baldintza da pertsona guztien ongizatea lortzeko.

Eta hori adierazten du aitorturik zer lan handia egiten ari diren arabar mugimendu feminista eta emakume elkarteak berdintasunaren arloko garapenaren eta aurrerapenaren alde, aitorturik haiek egiazko berdintasuna lortzeko egiten dituzten aldarrikapen eta eskariak balio handiko erreferentzia direla gizarte bidezkoago eta berdintasunezkoago bat eraikitzeko bidean.

Hori dela eta, beharrezkoa da emakumeak ahalduntzea, eta aitortzea haien autoritatea eta ahalegina herritartasun betea oztopatzen duten hesi eta trabak kentzeko eginkizunean.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak herritar guztiak **GONBIDATZEN** ditu, batez ere Arabako Lurralde Historikoko emakume guztiak, martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguneko ospakizunak direla-eta izango diren era bateko eta besteko ekitaldietan parte har dezaten.

Gasteiz, 2016ko martxoaren 8a